

# Noaúa!!

www.noaúa.com



Igande honetan, Andatzara

“Hotsez hots” erakusketa,  
Pelex eta txalaparta solasean



# BetErriKo LibuRua 2007

LitEraTur AiPameNa, XII. eDizloA



*Andoaingo Bastero Kulturguneko aurkezpen artea*

*Maiatzak 17, larunbata, eguerdiko 12:00etan*

*Sarrera irekia. Nahi duen oro dago gonbidatuta*



- 2007an argitaratutako liburuen artean irakurleek gogokoen izan duten lana sarituko da.
- Besteak beste, bertan izango da aipamena jasoko duen idazlea; ekitaldiaren amaieran, hitza hartuko duena.
- Musika, letra eta hitza; sortzaileengandik hartzaileengana.

ORAIN ARTEKO LAN SARITUAK, URTEZ URTE

<b>1996</b> Joxean Agirre Elgeta	<b>1997</b> Ur Apatategi Izidin Gauak eta hiriak	<b>1998</b> Koldo Izagirre Nik ere Germinall' egin gura nuen aldarni	<b>1999</b> Lourdes Oñederra Eta amakume-ari sugeak esan zion	<b>2000</b> Ramon Salzarbitoria Gorde nazazu lurpean	<b>2001</b> Joseba Sarrionandia Lagun izoztua	<b>2002</b> Anjel Lertxundi Zorion pertek-tua	<b>2003</b> Bernardo Atxaga Soinujolearen semea	<b>2004</b> Pako Aristi Gauza txikien liburua	<b>2005</b> Juan Kruz Igerabide Hauts bihurtu zineten	<b>2006</b> Karmele Jalo Amaren eskuak

**Maddi Oihenart kantaria**  
Maiatzak 10 larunbata, 22.30h, Suteqin

## Sarrera zozketa

### Nola du izena

### Maddi Oihenarten

### azken diskoak?

Erantzun egokia e-postaz bidaltzen digutenean artean, lau sarrera zozketa egingo dugu. Bina sarrera eskuratuko dituzte zozketan nagusitzen diren bi herritarrek. [erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com)

Maiatzaren 9an ostirala jakinaraziko ditugu irabazleen izen-abizenak [www.noaua.com](http://www.noaua.com) webgunean.



Antolatzailea: Jexux Artze Kultur Elkarte. Laguntzailea: NOAUA! Kultur Elkarte.

Albisteak iruditan !!

# Ordubeteko lanuztea egin zen astelehenean

**L**AB sindikatuak deituta ordubeteko lanuztea egin zen pasa den Apirilaren 28an, Lan Osasunaren Nazioarteko Egunean. Helburua, lan istripuak salatu eta ezbehar horiek jasaten dituztenei elkartasuna adieraztea zen. Baita ezbehar horiek eragiten dituzten gaixotasunak eta alor honetan administrazio publikoak erakusten duen arduragabekeria salatu ere. Segurtasun eredu ezberdina aldarrikatzen du LABek. Irudian, udaletxe aurrean bildu ziren herritarrak. Lantegietan ere bilkurak egin ziren. Enpresa handien artean, Luzuriagan eta Michelinen ordubeteko lanuztearekin bat egin zuten.



UDALETXE AURREAN ELKARRETARATZEA EGIN ZUTEN HAINBAT LANGILEK.

## Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil  
 943 36 03 21 - [elkartea@noaua.com](mailto:elkartea@noaua.com) - [www.noaua.com](http://www.noaua.com)

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, [elkartea@noaua.com](mailto:elkartea@noaua.com)

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, [erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com)

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, [elkartea@noaua.com](mailto:elkartea@noaua.com)

Publizitatea: Intza Salsamendi, [publizitatea@noaua.com](mailto:publizitatea@noaua.com)

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.  
 Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Intza Salsamendi, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza, Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

## Aurkibidea

IGANDEAN, ANDATZA EGUNA **5. OR.**

KRONISTAK KALEJIRAN **6. OR.**

MAIATZAREN LEHENA **12. OR.**

ESKUBALOIAREN ALDEKO KAMISETAK **14. OR.**




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA  
 GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Kale nagusia, 10  
 Telf: 943 37 33 48  
 943 37 09 13

Okindegia - Gozolegia

**LABE-GOXO**

**Patri Jatetxea**

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

**LATAILLADE ITURGINTZA**

GASA BEROKUNTZA  
 MANTENIMENUA ETA  
 KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Aritzitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021



LUIS ARANALDE

## Txiroen esperantza

**A**buztuaren 15ean eskuratuko du Paraguaiako lehenda-akaritza Fernando Lugok. Bost urtez izango da presidente. Berezitasun bat du agintari berri honek: duela hiru urte arte gotzain zen Paraguay-ko lurralde pobreenetariko batean. "Pobreen gotzain" deitzen zioten.

1-Bere bizitzaren une nagusienak. 1951n jaio zen, familia behartsu batean, askotan pertsegitua: kartzela, torturak eta erbetea; izan ere, Alfredo Stroessner-en diktadura ez baitzen txantxetakoia izan. 1977an abade ordenatu zuten eta Ekuadorrera joan zen misiolari gisa indigenen eta nekazarien artean lan egitera. Han izan zituen "askapen-teologiarekin" lehen harremanak; kristau mugimendu progresista hau 1960 inguruan sortu zen Hego Ameriketara; kristau hauek balore ebanjelikoak bizitzen saiatzen dira erradikalitasun osoz egoera pobre eta zapalduetan.

1992an itzuli zen Paraguaira eta 42 urte zituela Gotzain izendatu zuten San Pedro Elizbarrutian. Berehala nabarmendu zen lider konprometitu bezala, batez ere lurrik gabeko nekazari behartsuenen alde.

2005ean uko egin zion Gotzain karguari eta alderdi politiko ezkeriar bat sortu zuen. Lehengo astelehenean irabazi zituen hauteskundeak. "Etap bat gainditu dugu eta Paraguai guztiz aldatzeko lanari ekingo diogu", zioen hauteskunderen biharamunean.

Izango du zereginik: % 40a pobrezian bizi da; ezberdintasun sozialak ikaragarriak dira.

2-Elizarekiko harremanak. Vatikanok ez zuen onartu Gotzaingotzaintza uztea, baina, "a divinis" etenaldia eman zion, hau da, apaiz eta gotzain ministerioa betetzea debekatu zitzaion. Vatikanok ez du inoiz ongi ikusi apaiza kargu publikotan konprometitzea. Susmagarria iruditzen zaio beti. 80ko hamarkadan apaiz batzuk ministro sandinistak izan ziren Nikaraguan. Ernesto Cardenali, hain zuzen, sekulako erretolika bota zion publikoki Juan Pablo II.ak Managuako aireportuan. Ez zait inoiz ahantziko eszena hura: han zegoen

belaunikaturik Ernesto Cardenal, Aita Santuaren besarkada edo bedeinkapena gutxienez jasotzeko. Baina, horren orde, hura keinu zorrotza eta haiek hitz gogorrak!

3-Politikagintzaren zergatia. Elkarrizketa luze eta zabal bat egin zioten duela hamar bat hilabete. 2006 urtearen amaieran esana izan behar zuen nonbait "nire katedrala Paraguai osoa izango da hemendik aurrera"; eta elkarrizketatzaileak galdetu zion ea amets horrekin jarraitzen zuen oraindik. Hau izan zen bere erantzuna:

"Nazio osoa katedral bihurtzea asmo ederregia da, agian. Nik esan nahi nuena zera zen: etorkizunean herri osoaren alde lan egingo dudala; herritar guztien zerbitzuan jarriko naizela, paraguaitarrok merezi dugun justiziazko eta anaitasuneko nazioa eraiki dezagun".

Beste une batean erantzuten zion: "Pio XI.ak esaten zuen politika dela karitatearen adierazpenik gorena, ederrena. Nire ustez, politikaren alderdi positiboa erreskatatzen saiatu behar dugu eta santu bihurtzen lagun diezagukeen politika martxan jarri. Niretzat, politika eta erlijioa moneta beraren bi alderdiak dira".

Ez dauka bromako lana gure Gotzain ohiak proiektu eder hau aurrera eraman nahi badu. Etsai handienak bertan aurkituko ditu, hots: jauntxoak, multinazionalak, pribilegio anitz, ustelkeria... Zerbaitek min eman baldin badio zenbait komunikabideek bere aurka egin duten gerra zikina izan da. Baina, baduela indarririk, dio, gezur horien aurka borrokatzeko, ez dutela zapalduko, ez diotela lanerako gogorik kenduko.

Askotan aipatuko zuen Gotzain zela Nazareteko Jesusen esaldi hura: "Ni ez naiz etorri besteen zerbitzuak hartzera, zerbitzatzera baizik"; berari jarraitu nahi dio beti bezala etapa berri honetan. Beharko du zerutar eta lurtar guztien laguntza; txiroek beregan jarri dute esperantza osoa eta ez dute desengainurik onartuko. Itxaropen hori gauzatzeko gai izan dadin opa diogu.

Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregerai - Joxe Piñas - Unai Agirre

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!K ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: maiatzak 9. Idatzia ekartzeko azken eguna: maiatzak 5.

**CLIMATA-T**  
klimatizazio orokorra

687 858 390  
climata\_t@yahoo.es

**JOSETXO IKATZETA**  
Iturgintza

TEL: 943 36 20 26  
687 95 12 25

**LAUKOTE**  
OKINDEGIA  
KAFETEGIA

Puntapax kalea, 16 behea  
(Artzabal). 943 36 09 80

Papera jartzea eta  
Pinturak orokorrean

**FERNANDO  
PINTORAK**

943 366 019  
943 363 460

Kale Nagusia 1 · USURBIL

# Igande honetan, Andatzara

**M**aiatzeko lehen igandeak Andatzara igotzeko eguna dela esan nahi du askorentzat. Egun pasa ederra prestatu dute, elkarlanean beste behin, usurbildarrek eta zizurkildarrek. Hilaren 4an Andatza gaina zapaltzen duenak, festa eder batekin topo egingo du.

Andatzak herrien arteko muga lanak egiten ditu, baina urtean behin muga horiek desagertu edota gaindizten dira. Antolatze lanetan eta parte hartzerakoan mendiko bi aldeetako herritarrak, zizurkildarrak eta usurbildarrak batzen baititu Andatza Egunak. Bi herrietako Udalak eta baita mendi elkarteak ere.

Aurten ere denetarik aurkituko dugu maiatzaren 4an; salda eta pintxoak hamaiketakorako, adin guztiei zuzendutako herri kirolak eta jokoak, trikitixa, bertso saioak... Bazkaria etxetik eraman eta otordua bertan egiteko asmoz dabilenak, kafea eta kopa



ANDATZA EGUNEKO IRUDIA. IAZ, BERTARA IGO ZIRENAK BERTSO SAIOA ENTZUTEN. BESTEAK BESTE, BEÑAT GAZTELUMENDI GAZTEA IZAN ZEN KANTARI.

bertan zerbitzatuko diote. Baina horretarako lehenik, 562 metrotako garaierara igo behar da. Maiatzaren 4an ahalegin hori egiten duenak, argi dagoenez, sari ederra izango du.

Dagoeneko antolatzaileak eta parte hartzaileak zerura begira egongo dira. Andatza Eguna itsusitu dezakeen bakarra eguraldia izan daiteke eta. Ia zortea dagoen eta ateri eusten dion.

## Andatza Mendi Elkartearen oharra

**P**asa den apirilaren 20an XXIV. Mendi Ibilaldia burutu zen. Parte hartzaileek herriko muga guztiak zeharkatu zituzten. Andatza Mendi Taldekoek deialdiarekin bat egin zuten guztiak eskertu nahi dituzte. Aldi berean, barkamena eskatu nahi diete. Ibilaldi egunaren bezperan, antolatzaileak mendi martxako bidea markatzen aritu ziren. Baina egindakoa ez zen apirilaren 20ko Mendi Ibilaldirako baliagarria izan, ezezagunek hainbat bide seinale kendu baitzituzten. Horrek buruhauste eta nahasmen ugari eragin zuen mendi zaleen artean. Horregatik Andatzakoek haien kexua agertu nahi diete ibilbide polit bat egiten saiatzeko asmoa zaildu zutenei.

## Hamaiketakoa, herri kirolak eta bazkaria

**Goizean zehar, erromeria:** trikitilari eta bertsolariak.

**11:00 Hamaiketakoa:** salda, txorizoa, haragi egosia eta edaria.

**12:00 Herri kirolak eta jokoak** haurrentzat eta helduentzat.

**14:00 Bazkaria** (norberak berea eramanda). Kafea eta kopa banatuko dira.

**Antolatzaileak:** Zizurkilgo Ziotza Elkarte, Usurbilgo Andatza Mendi Elkarte, Zizurkilgo Udala eta Usurbilgo Udala.



ATXEGALDE

M<sup>A</sup>JESUS URBIETA

## Auzoko gorabeherak



**O**raingoan ere auzoari errepasso txiki bat egitekotan nator. Esan beharrean aurkitzen naiz auzoan zenbatetan zulatu dizkiguten errepide edo pasabideak, zanga ireki eta hodiak sartu, ura dela, gasa dela edo zuntz optikoa dela eta abar eta abar. Ondoren zanga edo zuloak itxi, errejistroko estalkiak jarren dituzte nonahi. Estalki hauek zarata handia ateratzen dute ibilgailuak gainetik pasatzen direnean. Akaso estalkiak goma batzuk edo izango balitu, zarata txikiagoa izango litzateke.

Beste arazoetako bat zaborrontziena da (kontenedoreak). Aristitxo kalean bakarria dago eta honek mugikorra dela dirudi. Egun batean espaloï gainean ikusten dugu, hurrena bidean egoten da, edo portal ondoan.

Bestalde, eta ez da lehenengo aldia kexatzen garela, jakinik auzoak malda batzuk badituela eta azken aldiak egin dituen egun eurixuetan nabarmenagoa izan dela esan dezakegu, kalean edo espaloietako labaintzeko arriskuaz ohartarazi nahiko nituzke arduradunak. Kontu haundiz ibilita ere, ipurdiko ederrak hartutako auzotarrak badira.



Eta dena txarra ez dela adierazteko, auzoko patxada nabarmendu nahiko nuke. Bertan lasai lasai ibiltzen gara eta ez dugu soinu arazorik ere izaten lo egiteko. Gainera, udaberriari gaudenez, geratzen diren belardi eta zuhaitzen usain eta kolore biziez gozatzeko aukera paregabea daukagu.

AGINAGA

ANE MANZISIDOR

## Hurrengoa laister



**Z**er moduz gabilta? Aginaga aldean gauzak beti bezala jarraitzen dute. Ez da inolako aldaketa nabarmenik gertatu.

Azken nobedadea, orain dela hilabete egin zen Gau Beltza kontzertuarena izan zen. Bertan izan genituen Lurpe, Trapagarango taldea, Metralleta eta Anestesia talde zarauzarrak. Kontzertua goiz amaitu bazen ere, goizalderarte giro polita izan genuen. Jendeari dagokionez, 200 bat pertsona bildu ginen Aginagako eliza zaharrean.

Beste hainbat ideia eta ekintzaren inguruan ere pentsatzen dihardugu, kontzertuko gauean jendearen erantzuna ikusita, pena merezi baitu jarduera ezberdinak antolatzeak, jende mota eta adin ezberdinetakoentzat. Gutxien uste duzunean emango dugu hurrengo sorpresa!!

Gaia errotik aldatuz, errepidean kontuz ibiltzeko deia luzatu nahi dizuet hemendik. Izan ere, azken asteetan zenbait kontrol izan ditugu herrian, abiadura kontrolatzeko kanpaina dela eta. Hau dela eta argi ibili, Ertzaintza txoko ezkutuean edo gutxien uste duzun tokian aurki baitezakezu.

KALEBERRI

IRATI PORTU

## Udaberri tronpetajolea

**U**daberri tronpetista badator eta berokia agurtuko dut". Halako zerbait izango litzateke Delincuentes taldearen kanta famatuaren itzulpen baldar bat. Udaberriari sartu ginenetik buruan jira eta buelta dabilkit doinu hau, baina orain arte amorrarazteko bakarrik balio izan dit, eguraldi xixtrina izan baitugu.

Jarri naiz gaur ordenagailuaren aurrean kronika idazteko asmotan eta beti bezala zertaz idatzi arrastorik ez. Halako batean kantu hau etorri zait burura eta, JA! gaurkoan atera behar diot ba probetxua!

Hasteko herritar guztiak igandean ospatuko den Andatza egunera animatu beharra dago egun polita izango baitugu: erromeria, hamaiketako ederra, urteroko meza eta gainera jolasak, gustu guztietarako ederki.

Bestetik, usurbildar guztioi barren barrenean zirrara sortzen diguten bi hitz gogoraraztea: Sagardo Eguna!

Eta azkenik, horixe, eguraldi hontaz gozatzera animatzea mundu guztia, adibidez orain gutxi ikasitako Usurbilgo ibilalditxoak eginaz. Ondo pasa!



KALEZAR

MAIDER MAKAZAGA

## Kontuak kontu, uda da gerturatu



**I**kusi al duzue nola dauden sagarrondoak egunotan? Zoragarriak daude, lorez bete-beteta eta sekulako kolorearekin. Noski, beste urtetan ere berdin egongo ziren garai honetan baina tira, aurten inoiz baino ederragoak daudela iruditzen zait.

Pentsatzen dut azken egunotan egin duen eguraldiak ere izango zuela eraginik zeren uste dut denok ere, udazale eskaxena barru, bero pittin bat eta eguraldi onaren irrikitan gaudela.

Kontuak-kontu, iritsi da soroak goldatu, maniatu eta haziak ereiteko garaia; patata, artoa, babarruna... Zenbat jende egongo ote da garai hauen zain lehenbailehen erein eta etekinak garaiz jasotzeko edo lanerako grinaz, jorنالاریen kasuetan. Han-hemenka kanpotik etorritako etorkin ugari ikusi ohi da soroetan bilketa lanak burutzen, kasu asko eta askotan bertakoak egin nahi ez dituenak.

Bestalde, usurbildar gehienok hain maitea dugun maiatzaren atarian gaude; eguraldi ona, ekintza ugari herrian, Sagardo Eguna ate joka... Apirilaren 20an ere, Andatza elkarteak antolatutako ibilaldia egin zen mugaz-muga eta



eguraldiaren kezarik behintzat ez zuten izango bertan ibili zirenek.

Tira, argi dago hemendik aurrera gozatzea besterik ez zaigula gelditzen. Gozatzea eguraldiaz, gozatzea herriaz, gozatzea ekintzaz, gozatzea jendeaz... Gora gozamen!!

SANTUENEA

ALEX TELLO

## Blues gauak



**U**surbilgoa (ere) dugun Oria ibaiak, itsasportua Orion du eta Orio gogora, oriotar laguna gogoan.

Zarautzen ezagutu nuen oriotar kantari gaztea. Duela zenbait urte, gure herrira etortzen (omen) zen bere gitarrarekin. Beranduago, elkarrekin egon ginenetan, sekula ez zidan kontzertu haien aipurik egin. Galdetu ote? Usurbilera etorria zen garai haietan ez ginen elkar ezagutzen, oraindik. Orduan, ahots ederrenaren jabearen laguna izango banintz...

Oria ibaiak mareak ekartzen bazituen (eta baditu), oriotar kantariak itsasoaren blues-a. Gitarra joaz ekartzen zizkigun kostako korrante eta uhinak, sentimenduzkoak. Bere ahotsarekin, itsasoaren mintzoaren ahalmenaren jabe zen.

Berarekin pasa nituen uneak urriak izan arren, onak, politikaz ziren, ahantz ezinak. Gaur ez dut bere izena idatziko, bere gabezia ametitzea kosta egiten zait eta, ia urte bat pasa denean...

Gogoratzen dut Zarautzen, tabernan (aukeran rock&rolla), hondartzan, kafetegian, kalean, Getarian eta... parranda alaian, gauaren amaieran ilargiarekin solasean. Abesten zuenean (nire aurrean gutxitan, eta oso gogokoa nuen), atseginean bare, isilik egoten nintzen, entzumenaren gozamenak merezi zuelako. Blues une errepika ezinak. Gau haietako une distiratsuak.

ZUBIETA

GARAZI ITURRALDE

## Mugitu, berandu dela!

**G**arazi, mugitu, berandu dela!" esaten dit anaiak.

Goizero berdin ibiltzen gara gure etxean. Zubietako ikasleek, ez dakigu zer gertatzen den, baina autobusa gero eta goizago etortzen da gure bila, eta batzuetan, gainera, ez digu itxaroten.

Eguerdian, berriz, ikastolatik korrika ateratzen gara autobusa hartzera, etxera garaiz iristeko asmotan, baina uste baino beranduago heltzen gara askotan. Bazkaltzeko geroz eta denbora gutxiago daukagu.

Hauetako egun batean, beharbada, koilara esku batean eta babarrun platerarekin bestean azalduko gara autobus geltokira, eta ez harritu ikastolara ere horrela azaltzen bagara.

Badakigu gizarte ero honetan geroz eta azkarrago egin nahi izaten direla gauzak, eta beharbada hau guztia, gizarte ero honen prestakuntza bat baino ez da, edo azterketa txiki bat.

Hori bai azterketa bat bada, azterketa hau zubietarrok gaintitu egingo genuke, ia beti hartzen baitugu autobusa.



Jose Luis Elexpe, "Pelex"

## "Egurra lantzen, irudi bihurtu dut txalaparta"

**T**xalaparta gai gisa hartuta, bere soinu eta kolore ezberdinak konbinatuta erakusketa osatu du Jose Luis Elexpe "Pelex"-ek. "Hotsez hots" izena du azken bi urteetan isilean burutu duen lanak, eta txalapartaren dar-dara helarazi nahi die bisitariei. Maiatzaren 9an inauguratuko da, 19:30ean Sutegin. Bere artelanak maiatzaren 25era arte ikusi ahal izango dira Sutegin eta Barrenkalen.

**NOAUA!** Txalapartaren inguruko erakusketa prestatu duzu bi urteetan. Nondik datorkizu inspirazio iturria?

Pelex. 2005eko abenduan erakusketa bat egin genuen. Eskulturak jarri nituen gehienbat. Orduan, erabat aldatu nahi nuen lehengo lana oraingoarekin. Nere garaian pilotan ibilia nintzen, baina gai hori Mendizabal eskulturgileak landu zuen. Beste iturri bat txalaparta zen. Usurbilen txalaparta betidanik izan da oso aberasgarria. Jexux Artze laguna nuen, berarekin hasi nintzen txalaparta jotzen ikasle bezala. Beste batzuek musika egiten duten bezala, nik egurra lantzen irudi bihurtu dut txalaparta.

**N. Bi urte buru belarri aritu zara honetan?**

P. Liburu bila aritu naiz, ez baitaude asko. Ikerketa lan aldetik oso aberasgarria izan da. Azkenean, ttakun ttakunetik hasita, mugimendu asko daude. Txalaparta nolatan eta zergatik sortu zen, zer mezu zituen.. gai horiek guztiak jorratu nahi izan dut. Sorrera urteetik gaur eguneraino.

**N. Txalapartaren eboluzio bat ikus daiteke beraz?**

P. Eboluzio bat dago. Lehen egurrari eman zitzaion bezala, orain harriari eta burniari ematen zaie. Izotzetan ibili dira Oreka Tx-ekoak. Txalapartak zerikusi handia izan du lan egiteko modua-



PELEXEK SORTUTAKO TXALAPARTARIAK OHOL TARTEAN DAUDE MUSIKA INSTRUMENTUA JOTZEN. MAIATZAREN 9TIK AUERRERA IKUSGAI.

rekin; sargardoa egiten zenean, txalaparta baliatzen zuten. Hildako bat zenean ere, besteei jakinarazteko musika instrumentu bera erabiltzen zuten.

**N. Erakusketa ikustera hurbiltzen denak, zer modutan ulertu behar dituzure lanak?**

P. Niretzat txalaparta jotzeko moduak daude. Koloreen artean, kolore hotzak eta beroak daude. Musika aldetik, soinu aldetik gogorak eta leunak daude. Hori guztia uztartzerakoan dardara, bibrazio bat sortzen da, espaziora etortzen dena. Hemen txalaparta

jotzen badut han entzungo da. Dardar hori entzungo dut. Horregatik erakusketak izenburutzat "Hotsez hots" du. Kolore eta soinuen uztartze bat da. Eta hori transmititu nahi da espaziora eta jendearengana. Erakusketan bakoitzak bere leihoa ireki behar du eta lan bakoitzak transmititzen dion hori esan dezala. Ireki, ez pasa.

**N. Zer motatako lanak aurkituko ditugu erakusketan?**

P. Aitzinako moduko lanak egin nahi nituen. Horiei zahar tankera eman diet eta kolore gabekoak dira. Kolore asko



sartu dut beste lan batzuetan. Oholak eta makil asko erabili ditut. Material anitz baliatu dut. Egurra, pintura akriliko asko sartu ditut. Argizaria asko, soka asko, brontzea, altzairu zaharra... Denetarik erabili dut. Baina erakusketaren oinarria, egurra koloreekin uzartzea eta altzairua izan dira. Batetik, koloreak eta bestetik, txalapartarien mugimendu guztiak jaso ditut.

### PELEX



“Eskultura eta pintura aldetik, txalaparta jorratu eta landu duenik ez da izan orain arte”

N. Txalaparta jotzen den lekutik entzuten den tokira, bi espazio daude. Erakusketak ere bi espazio izango ditu. Lotura badago beraz?

P. Sutegi apur bat txikia zen. Lan asko eta espazio handia behar da ikusteko. Jendeak parte hartzea nahi dut. Buelta guztia egin dezatela. Sutegi txikia denez, nahi dudana da jendeak galde dezala ia bertan ikusten duenaren atzean zer dagoen. Barrenkaleko lokala handiagoa da, gehiena bertan egongo da. Sutegira joaten denak erakusketa bertan ez dela bukatzen konturatuko da.

N. Erakusketa hamabost egunez zabalik izango da. Gero, beste herri batzuetara eramango al duzu?

P. Bizpahiru lotura ditut. Usurbilgo herriari aukera eman nahi nion lehenbizi. Gero, katalogo bidez banatzen hasi behar dut. Baita estatu mailan ere, jendeak hemen zer musika mota egiten den jakin dezan. Hurrego urtean, Hernanin ospatzen den txalaparta festan izango da erakusketa. Lokal handiak behar ditut, baina halako azpiegiturak bilatzea zaila da. Txalaparta gai gisa eskultura eta pintura aldetik jorratu eta landu duenik ez da izan orain arte. Horregatik izan dut oso gordeta nire tailerlean. Bi urteetan ez du ia inork honen berri izan.



IRUDIAN ABERI DIREN ARTELANAK, PELEXEK SUTEGIN ETA BARRENKALEN ERAKUSGAI JARRIKO DITUEN PIEZETAKO BATZUK DIRA.

## “Gustura aritu naiz lanean”

NOAUA. Bi urte hauetan, tailerra zeure bigarren etxea izan da.

Pelex. Nire lehen etxebizitza izan dela esango nuke. Nire estudio eta etxe bezala bihurtu dut gunea. Herrian oso gutxi ikusi naute azken bi urteetan. Halako gauzak egiteko ez bazaude gustura zure inguruan, espazioan eta egiten ari zaren horrekin, ez dago emaitzik. Hemen ordea, emaitza dago eta ikusten da, hemen lanean gustura aritu naizela. Bestalde, iaz down sindromea dutenekin lanean aritu nintzen. Asko transtmititzen zidaten eta indar handia eman, hone-

tan segitzeko. Asko eskertzen diet eta proiektu honen parte dira. Ahaztu gabe noski, lagunak, senitartekoak...

N. Hamabost egunez erakusgai izango dira zeure artelanak. Eta gero zer?

P. Hainbeste jorratu dut gaia, orain eten egin nahi dudala. Ikastera itzuliko naiz. Eta geroago beste zerbait egiten hasiko naiz. Jada, egitasmo bat badabilkit buruan. Euskaldun jendearekin zerikusia duen zerbait da, ospe ona duena geure artean. Oraingoarekin bezala, dar-dar hori ere eragin nahiko nuke.

## “Gaurko menua”, bi sukaldariren ametsak eta atsekabeak

**A**ne Gabarain eta Lierni Fresnedo protagonistatzat dituen “Gaurko menua” antzezlanak Sutegin ikusgai izango da, maiatzaren 9an 22:00etan.

Pepi eta Txelo sukalde koipetsu batean lanean diharduten bi langile dira. Hainbeste orduz lan eginda, bien bizitzetan ez dago alaitasunik. Haien atsekabe eta ametsak partekatzen dituzte, malko eta irribarre artean. Lehiaketa bat irabazteko aukera, horixe da duten irtenbide bakarra.

Komedia gazi-gozoa da “Gaurko menua”. Bertan, emakumeak dituen nahiak eta sentimenduak agertzen dira. Paco Montesek zuzentzen du



MAIATZAREN 9AN IKUSGAI IZANGO DA ANTZERKI SAIO HAU SUTEGIN.

Dar Dar Produksioak-en antzezlanak.

Sarrerak aldeztatik aurretik eskura daitezke Mahukan eta Lizardin, 8 eurotan. Edo egunean bertan, hamar euroren truke.

## Maddi Oihernaten kantaldia Sutegin

**M**addi Oihenart eta bere taldea dira, aurtengorako Jexux Artze Kultur Taldeak aukeratu duen musika taldea. “Hari biru” proposamen pertsonalago eta ausartagoarekin datoz. Konposizio eta euskal olerkiei jarzen dien ahots eder eta sendoak harritu eta harrapatzen du ikusentzulea. Sutegin maiatzaren 10ean, 22:30ean.

Sarrerak aldeztatik aurretik eskura daitezke Mahukan eta Lizardin, 8 eurotan. Edo egunean bertan, hamar euroren truke. Afalaurretik, kaleak girotzen ibiliko dira “Bentazarreko mutiko alaiak” taldea. Urretxu-Zumarragatik eta Urrestillatik, euskarazko abestien errepertorioa astintzera dator boskotea. Arratsaldean, 18:00-20:30 artean ibiliko dira kalez kale, esku-soinua, biolina, gitarra, dultzaina, txirula, aho-soinua eta perkusioa jotzen eta abesten.



MADDI OIHENARTEN KANTALDIA 22:30EAN HASIKO DA ETA EZ 20:30EAN.

## “Voces del desierto”, sahararren ikuspegia biltzen duen ikusentzunezkoa

**T**indufeko kanpamenduetan bizi diren saharar errefuxiatuen bizimodua nolakoa den erakusten du “Voces del desierto” dokumentalak. Lehen mailako lekukotzeekin gainera; bertan bizi direnek kontatzen baitute zer modutan antolatua duten bizimodua. Autodeterminazio erreferenduma eskatzen duen herria ageri da bertan.

Dokumentala Sutegin eskainiko dute eta Beñat Hach Embarek-en euskarazko hitzaldiarekin osatuko da



MAIATZAREN 3AN EMANGO DUTE DOKUMENTALA SUTEGIN.

ekitaldia. Maiatzaren 3an 19:30ean. Sarrera doan.

**txirriStra**  
KONTSEJUZARRA 13  
943 360 466  
pintxoak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak  
**TABERNA**

teilatua eta fatxada  
**JOSE AIZPURUA UNANUE**  
Obaba kalea 29 · ASTEASU  
943 69 68 52 · 620 800 186

## Maiatzaren 6an, konpostajeari buruzko hitzaldia

**S**ortzen dugun zaborraren erdia baino gehiago organikoa da. Marina Hernando hizlariaren ustez, "gai organikoa ez dugu zabortzat hartu behar, hau da, konpost bidez erraz berrizta daitekeen gaitzat hartu behar dugu". Ideia hau eta beste batzuk landuko ditu Hernandok Sutegin eskainiko duen hitzaldian.

Einean Guraso Eskolak eta Udalak konpostajeari lotutako hitzaldia presatatu dute. Maiatzaren 6an antolatu dute ekitaldia Sutegin. Geologian lizentziaduna den Marina Hernando arituko da hizlari lanetan 19:00etik aurrera. Gai organikoak bereizteak duen garrantziaz jardungo du Hernandok. Antolatzaileen esanetan,



GAI ORGANIKOA BEREIZTEAK DUEN GARRANTZIAZ JARDUNGO DU HIZLARIAK.

sortzen dugun zaborraren erdia baino gehiago organikoa dela ez baita ahaztu behar. Hori guztia konpostan bilakatzekak duen abantailen berri ere emango du hizlariak. Sarrera doan.

## Datorren astelehenean, odol-ematea anbulatorioan

**D**atorren astelehenean, maiatzak 5, odola emateko aukera berri bat izango da. Beti bezala, herriko anbulatorioan, arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara.

Odola emateko ohitura duten herritarrei, zuzenean jakin arazten diete odol-ematearen berri. Baina, ohiko odol emale ez direnak ere, ongi etorriak izan ohi dira. Hori bai, lehen aldiz animatzen direnek, gogoan har ditzatela baldintza hauek:

- 18 eta 65 urte arteko adina izatea.

- 50 kilo baino gehiago pisatzea.
- Tentsio altua eta baxua neurri egokietan mantendu.
- Azken odol emanalditik, gutxienez, bi hilabete pasa behar dira.
- Baraurik ez da odolik eman behar, ez eta ere jan betekarik egin.

Horiez gain, mediku bat izaten da beti, odol emaleen kezka guztiak argitzeko. Gogoan izan, odol-ematea datorren astelehenean izango dela, anbulatorioan, arratsaldeko 19:00etatik iluntzeko 21:00etara.

## Suedian eta Panaman izan dira Usurbilgo Lanbide Eskolakoak

**U**surbilgo Lanbide Eskolako Juan Antonio Eizagirre irakasleak Suediako zenbait enpresa eta Lanbide Eskola bisitatzeko aukera izan du, Korta fundazioaren laguntzari esker. Irakasle honek, bibrazioen bidezko mantenimenduaren inguruko proiektua garatzen ari da. Suediako hainbat eskola Varberg enpresarako haize errota bat monitorizatzeke sistema garatzen ari direnez, benetan aberasgarria suertatu zaion proiektua aztertzeke aukera izan du. Bestetik, guztiz adierazgarria iruditu zaio enpresek eskolengan duten konfiantza ekoizpen proiektu bereziak garatzeko orduan.

Bestalde, Usurbilgo Lanbide Eskolako Xabier Esteban, Arrasateko Alecop eta LKS Ingenieritzarekin batera Panaman izan da Panamako Jakinduriaren Hirian kokatuko den Energia Berriztagarrien punta-puntako gunearen eraikuntzaren azken zertzeladak finkatzen. Hango ordezkariekin hainbat bilera izan dituzte gune honen behin betiko kokapen egokia erabakitzeke. Proiektu honek oihartzun handia izan du bertako gizartean.



LANBIDE ESKOLAKO BI KIDE PANAMAN ETA SUEDIAN IZAN DIRA.


Ileapaindegia eta Solarium-a

**Ioli Lizarralde**

Estetika Zentroa Merche Casaresen eskutik.

Zubiaurrenea, 5B ☎ 943 361 971

HALITATERAKO  
**EUSKAL OKELA**



CARNE DE VACUNO DE CALIDAD DEL PAIS VASCO

**ALKORTA AUTOZERBITZUA**

Frutak  
Barazkiak  
Etxeko produktuak  
Izoztuak

Behoko kalea, 4  
Telf: 943 36 57 42

## Euskal sindikatuek, beste behin ere, zatikatuta ospatuko dute Maiatzaren Lehena

**M**aiatzaren Lehenean langile asko kalera aterako dira. Hori bai, bakoitza bere sindikatuaren aterkipean. LABekoak Iruñean bilduko dira eta ELAkoak Bilbon. UGT zein CCOO sindikatuak, ordea, hiriburu nagusietan bilduko dira manifestazioan.

Aldaketa politiko eta sozialaren alde. Maiatzaren Lehenean LAB sindikatuak egingo duen aldarrikapena izango da hori. Eredu politiko eta sozial alternatibo baten alde borrokatzeko deia egin dio LABek euskal langileriari. "Langileok aldaketa eragin,

gora Euskal Herri gorria" lemapean Iruñean bilduko dira LABekoak, eguerdiko 12:00etan, Golem zinemen ondoan.

ELAk, azken urteotan bezala, Bilbon ospatuko du Maiatzaren Lehena. Goizeko 11:30ean, Jose Elorrietak eta Adolfo Muñozek hitz egingo dute Jesusen Bihotzaren Plazan egingo den mitinean. Ondoren Bilboko kale nagusiak zeharkatuko dituen manifestazioa abiatuko da. Eta eguerdiko 14:30ean bazkaria izango da Barakaldoko BEC erakustazokan.

CCOO eta UGT sindikatuek



HIRIBURUETAN EGINGO DIRA MAIATZAREN 1EKO MANIFESTAZIOAK.

Bilbon, Gasteizen eta Donostian egingo dituzte elkarretaratzeak. Donostian, eguerdiko 12.00etan abiatuko dira Alderdi Ederretik.

## Egunotan auzipetuak direnen aldeko manifestazioa

**D**uela bi aste hasi zen Amnistiaren Aldeko Mugimenduko (AAM) kideen aurkako epaiketa. Prozesuan 27 pertsona auzipetu dituzte. Epaiketa salatze eta auzipetuei elkartasuna adierazteko, manifestazioa egin zen aurreko ostiralean. Iluntzeko 20:00etan hainbat herritar frontoi atzean bildu ziren eta segidan manifestazioa egin zuten kalez kale, "Euskal Herriak askatasuna behar du" lemapean.

AAMaren aurkako epaiketak aste honetan izango du jarraipena. Aurreko astean, bere burua defendatzeari uko egin eta eskatutako frog guztiak alboratzeko eskatu zuten auzipetuek, epaia "jada idatzita" dagoela uste baitute.



MANIFESTAZIOA AURREKO OSTIRALEAN EGIN ZEN.



**Usurbil  
Autoak, S.C.L.  
Zerbitzu Ofiziala**

Zumartegi Poligonoa,  
Aitezarra kalea, 1.  
20170 USURBIL  
Faxa: 943 36 62 92

**943 36 10 79**



**Kima**

MASAJE LEKUA



Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea  
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97

# Gaileta gozoak egiteko errezeta

## OSAGAIAK:

- 500 g. irin
- 200 g. azukre
- 125 g. gurin
- Hiru arrautza
- Koilarakada bat altxagarri kimiko (*royal* edo)

## NOLA EGIN:


-Hasteko, osagaiak apurka-apurka nahastu, orea trinkoa lortu arte.

-Gero, orea arrabolaz zabaldu eta edalontzi batekin moztu galleta forma emanaz.

-Ondoren, labeko erretilua guri-nez igurtzi eta jarri bertan galletak.

-Bukatzeko, irabiatutako arrautzarekin galletak igurtzi, labean sartu eta gaina gorritu arte eduki.

Udarregi ikastola, LH2



GAILETAK EGITEA OSO ERRAZA DA, PROBA EGIN EZAZU...

## Ziortzako kanpaldian bi txanda osatuko dira

Aurreko astean aipatu genuen A bezalaxe, Ziortza aisialdi taldeak antolatu duen kanpaldira 50 gazte animatu dira dagoeneko. Bien bitartean, Ziortzak udan egingo duen kanpaldirako txandak zehaztu dituzte. Adinaren arabera osatu dira bi txandak eta honako data hauetan egingo dira:

- Uztailaren 7tik uztailaren 20ra: aurten 6. maila, DBH 1, DBH 2 eta DBH 3 egin dutenak.

- Uztailaren 20tik uztailaren 27ra: aurten 3, 4 eta 5. maila egin dutenak.

Bien bitartean, izen-ematea zabalik dago oraindik. Informazio gehiago 638 524 710 telefono zenbakian eta ziortzage@gmail.com posta helbidean.

## Herri Urrats egunean lan egiteko jendea behar da

Maiatzaren 11n igandez, Herri Urrats festa ospatuko da Senpereko laku inguruan. Iparraldeko ikastolen aldeko festak, urtero, milaka lagun erakartzen ditu. Horien artean, badira lanera muxutruk hurbiltzen direnak. Usurbildarrak, tartean. Dena den, jende gehiagoren beharra dago. Txosna batean hiru orduz lan egitea litzateke kontua.

Lana eta festa, biak egin daitezke Herri Urrats egunean. Hori bera egingo dute usurbildar batzuk. Baina jende gehiagoren ahalegina behar da. Eginbeharrekoa hau litzateke: txosna batean, eguerdiko 12:30etik arratsaldeko 15:00etara lanean jardutea.



25 URTE BETEKO DITU AURTEN  
HERRI URRATS FESTAK.

Besterik ez.

Herri Urrats egunera animatzen bazara eta, hiru orduz txosna batean lan egin nahi baduzu, jarri zaitez harremanetan Josebarekin (943 36 12 16).

Aurten, 25 urte beteko ditu Herri Urratsak.

## Eskubaloi taldearen aldeko kamisetak

Ateratzen duten diruarekin Granollersen egingo den txapelketara joango dira

**E**skubaloi taldeko neska-mutilak Granollersen (Katalunia) jokatuko den nazioarteko txapelketan parte hartze-ko asmoa dute. Ikasturtean egindako lanaren ordainsaria izango da. Ekainaren 25eko asteburuan jokatuko da txapelketa. Usurbil KE taldeko gurasoek kuota bat ordainduko dute, udalak ere dirulaguntza emango die baina hori guztia baino zerbait gehiago beharko dute. Gastu guztiei aurre egiteko, kamisetak atera dituzte. 12 eurotan daude salgai, eta eskubaloi taldeek etxean jokatzen dituzten partida guztietan aurkituko dituzue.

Ederrak dira kamisetak. Badira berdeak, gorriak eta baita beltzak ere. Tamaina guztiak eta, neskentzako zein mutilentzako modeloak aukeran. 12 eurotan saltzen dira eta Oiarde kiroldegian jokatzen diren eskubaloi partide-tan erosi daitezke.

Behin gastuak estali eta gero, kamisete-kin ateratako dirua Granollersera egingo duten bidaiari aurre egiteko baliatuko da.

Asier Salsamendik azaldu digunez, “kadete mailako mutilak eta jubenil mailako nesken eta mutilen taldeak joango dira Granollerseko nazioarteko txapelketara”. Europa, Afrika eta Amerikako taldeak hurbildu ohi dira Granollersera, beraz, oihartzun handia duen txapelketa da.

### ASIER SALSAMENDI

“Esperientzia aberasgarria da; beste herrialdeetan nola jokatzen duten ikusteko aukera dute gure jokalariek”

Dena den, ez da hara joango diren lehen aldia izango. Azken hiru urteotan izan dira; beste batean, Alacanten jokatzen zuten txapelketa batean ere hartu zuten parte. Alemanian ere ibilitakoak



KAMISETETAN JOKALARIEN IZENAK AZALTZEN DIRA. 12 EUROTAN DAUDE SALGAI.

dira eskubaloi taldekoak. Beraz, bidaiari-zaleak dira Usurbil KE eskubaloi taldekoak.

### Helburua, ondo pasatzea

Asier Salsamendi taldeko kidea da. Bere esanetan, “esperientzia aberasgarria da jokalarientzat. Beste herrialdeetan nola jokatzen duten ikusteko aukera dute”. Lehiatzea kirolarekin bat doan kontua izan arren, Granollerseko bidaiak gehiago du aisialditik.

“Egunean zehar hainbat partida jokatzen dituzte, baina gero festa-giroa nagusitzen da. Diskoteka ere egin ohi da”, adierazi digu Salsamendik. Ondo pasatzea dela kontua.

Jokalaria, delegatu eta entrenatzaileen artean, guztira, 38 lagun joango dira Granollersera. Ekainaren 25ean hasi eta 29an amaituko den txapelketara autobusez joango dira. Udalak bidaiaren gastuei aurre egiteko dirulaguntza bat emango die baina horretaz aparte, estantzia gastuak ere badira. Horregatik egin dituzte irudian dauden kamisetak.

IMANOL UBEDA

## Denboraldi txukuna osatu dute eskubaloi taldeek

**A**maitzera doan denboraldiak orain arte eman duenari buruzko balantzea egiteko eskatu diogu Asier Salsamendiri.

Senior mailako Lehen Territorialeko taldeak ezin izan du igoera fasea jokatzen. Hori zen ikasturte honetako helburua. Datorrenean beharko du izan. Bigarren Territorial mailakoak, aldiz, lesioak izan ditu tarteko eta juxtu-juxtu bukatu du denboraldia, kantxaratzeko nahi baino jokalaria gutxiagorekin.

Jubenil mailako mutilak seigarren izan dira denboraldian. Neskak, aldiz, bigarren izan dira Gipuzkoako Txapelketan zein Euskal Ligan. Lehen aldiz, Espainiako Txapelketa jokatzen saillatu dira.

Kadete mailako neskek ere ondo ibili dira, Gipuzkoan bigarren eta Euskal Ligan hirugarren. Kadete mailako mutilak ere goiko postuetan aritu dira.

## Galdu arren, eskubaloi taldea pozik itzuli zen Kantabriatik

Usurbil KE eskubaloi taldeko jubenil mailako neskak Kantabrian izan dira Espainiako Txapelketarako baliagarri zen lehiaketa jokatzeko. Aurkariak gogorrak izanik ere, maila ona eman dute etxekoek. Partida denak galdu zituzten eta hainbat lesio jasan behar izan zituzten. Baina Nerea Aguado entrenatzailea pozik dago: "oso ondo pasa dugu eta oso ondo hartu gaituzte". Kanariarrak izan ziren nagusi.



DENBORALDI BIKAINA OSATU DU JUBENIL MAILAKO NESKA TALDEAK.

### Apirilaren 19ko jardunaldia

2. Territ.	Irun 30-Usurbil KE 20
Jubenil m.	Usurbil KE 22- Donibane 26
Kadete m.	Hondarribia 42-Usurbil KE 49
Jubenil n.	Aloña Mendi 19-Usurbil KE 26
Jubenil n.	Usurbil KE 34- Groseko 17
Kadete n.	Aloña Mendi 17-Usurbil KE 25
Kadete n.	Usurbil KE 30 - Bergara 11
Infantil n.	Udarregi 15- Arrate 5

### Apirilaren 26ko jardunaldia

1. Territor.	Urnieta 39-Usurbil KE 40
2. Territor.	Usurbil KE 28 - Bergara 26
Jubenil m.	Egia 34- Usurbil KE 34
Kadete m.	Usurbil KE 44-Aloña Mendi 39
Jubenil n.	Usurbil KE 17-RoCasa 28
Jubenil n.	Camargo 32- Usurbil KE 19
Jubenil n.	Usurbil KE 22- Dos Hermanas 29
Kadete n.	Bera Bera 15- Usurbil KE 41
Infantil m.	Zarautz 38- Udarregi KE 24
Infantil n.	Zarautz 13- Udarregi KE 15

## Birentzat afaria Urdaira sagardotegian



Mari Karmen Aierza Gorritik eskubaloi taldeek egin ohi duten errifan hartu zuen parte. Hara non, berak erosi zuen lehengo asteburuan saritutako zenbakia. Horri esker, birentzat afaria irabazi du Urdaira sagardotegian. Usurbil KE eskubaloi taldekoek eskerrak eman nahi dizkiete errifan parte hartu duten guztiei eta baita Urdaira sagardotegiari ere.

## Gimnasia erritmikoan nagusi



Usurbilen bada gimnasia erritmikoa egiten duen taldea. Aurreko asteburuan, gimnasia erritmikoari buruzko jardunaldiak egin ziren Oiardo kiroldegian. Alebin mailan, usurbildarrak nagusitu ziren. Irudian dituzue garai-leak, saria jaso eta gero ateratako argazkian. Zorionak!

### XXXVI. Pilota Txapelketa, asteburu honetako partidak

#### MAIATZAK 2 OSTIRALA, 19:00

##### Jubenilak

Apezetxea - Zubiri (Goizueta)  
Fernandez - Ortiz de Urbina (Antiguo)  
Mendinueta - Azkunaga (Lakua)  
Intsausti - Aranburu (Beasain)

##### Nagusiak

Artano - Aldazabal (Loiola)  
Azkarate - Iragi (Huarte)

#### MAIATZAK 3 LARUNBATA, GOIZEZ 10:30

##### Jubenilak

Otamendi - Murgiondo (Azpeitia)  
Iraola - Manterola (Amezketza)

##### Nagusiak

Renobales - Arraztoa (Bidegoian)  
Arregi - Barberena (Txaruta)

Aranburu - Huarte (Billabona-Bidegoian)  
Mujika - A. Galarraga (Bidegoian)

#### MAIATZAK 4 IGANDEA, GOIZEZ 10:30

##### Jubenilak

Jauregi - Lertxundi (Añorga)  
Etxaide - Calvo (Iruñea)

##### Nagusiak

Urkia - Ituarte (Lasarte)  
Valencia - Artutx (Burlata)  
Zelaia - Legarreta (Amezketza)  
Goikoetxea - Mendia (Beasain)

# Autobus Orduetgia

### Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN

Donostia	Urbil	Usurbil	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Usurbil	Urbil	Donostia
07.40	>>	08.05	08.15	08.25	06.45	06.55	07.05	>>	07.30
08.10	>>	08.35	08.45		07.15	07.25	07.35	>>	08.00
08.40	>>	09.05	09.15	09.25	07.45	07.55	08.05	>>	08.30
09.10	09.30	09.35	09.45		08.15	08.25	08.35	>>	09.00
09.40	>>	10.05	10.15	10.25	08.45	08.55	09.05	>>	09.30
10.40	>>	11.05	11.15	11.25	09.45	09.55	10.05	>>	10.30
11.40	>>	12.05	12.15	12.25	10.30	10.40	10.45	>>	11.10
12.10	12.30	12.35	12.45		10.45	10.55	11.05	>>	11.30
12.40	>>	13.05	13.15	13.25	11.45	11.55	12.05	>>	12.30
13.10	13.30	13.35	13.45		12.45	12.55	13.05	>>	13.30
13.40	>>	14.05	14.15	14.25	13.30	13.40	13.45	>>	14.10
14.10	14.30	14.35	14.45		13.45	13.55	14.05	>>	14.30
14.40	>>	15.05	15.15	15.25	14.30	14.40	14.45	>>	15.10
15.10	15.30	15.35	15.45		14.45	14.55	15.05	>>	15.30
15.40	>>	16.05	16.15	16.25	15.45	15.55	16.05	>>	16.30
16.40	>>	17.05	17.15	17.25	16.30	16.40	16.45	>>	17.10
17.40	>>	18.05	18.15	18.25	16.45	16.55	17.05	>>	17.30
18.10	18.30	18.35	18.45		17.45	17.55	18.05	>>	18.30
18.40	>>	19.05	19.15	19.25	18.45	18.55	19.05	>>	19.30
19.10	19.30	19.35	19.45		19.30	19.40	19.45	>>	20.10
19.40	>>	20.05	20.15	20.25	19.45	19.55	20.05	>>	20.30
20.15	20.35	20.40	20.50	21.00	20.45	20.55	21.05	>>	21.10
21.00	21.20	21.25	21.35	21.45	21.15	21.25	21.35	>>	21.40
22.15	22.35	22.40	22.50	23.05					

### Larunbat, igande eta JAIEGUNETAN

Donostia	Urbil	Usurbil	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Usurbil	Urbil	Donostia
08.00	08.20	08.25	08.35	08.45	06.45	06.55	07.05	07.10	07.30
09.00	09.20	09.25	09.35	09.45	07.45	07.55	08.05	08.15	08.40
10.00	10.20	10.25	10.35	10.45	08.45	08.55	09.05	09.15	09.40
11.00	11.20	11.25	11.35	11.45	09.45	09.55	10.05	10.15	10.40
12.00	12.20	12.25	12.35	12.45	10.45	10.55	11.05	11.15	11.40
13.00	13.20	13.25	13.35	13.45	11.45	11.55	12.05	12.15	12.40
14.00	14.20	14.25	14.35	14.45	12.45	12.55	13.05	13.15	13.40
15.00	15.20	15.25	15.35	15.45	13.45	13.55	14.05	14.15	14.40
16.00	16.20	16.25	16.35	16.45	14.45	14.55	15.05	15.15	15.40
17.00	17.20	17.25	17.35	17.45	15.45	15.55	16.05	16.15	16.40
18.00	18.20	18.25	18.35	18.45	16.45	16.55	17.05	17.15	17.40
19.00	19.20	19.25	19.35	19.45	17.45	17.55	18.05	18.15	18.40
20.00	20.20	20.25	20.35	20.45	18.45	18.55	19.05	19.15	19.40
21.00	21.20	21.25	21.35	21.45	19.45	19.55	20.05	20.15	20.40
22.00	22.20	22.25	22.35	22.45	20.45	20.55	21.05	21.15	21.40
22.30	22.50	22.55	23.05	23.15	21.45	21.55	22.05	22.15	22.40

#### LARUNBAT GAUETAN

00.00	>>	00.25	00.35	00.45
01.00 <sup>M</sup>	>>	01.25 <sup>M</sup>	01.35 <sup>M</sup>	01.45 <sup>M</sup>
02.00	>>	02.25	02.35	02.45
04.00	>>	04.25	04.35	04.45
05.00 <sup>M</sup>	>>	05.25 <sup>M</sup>	05.35 <sup>M</sup>	05.45 <sup>M</sup>
06.00	>>	06.25	06.35	06.45

#### LARUNBAT GAUETAN

23.15	23.25	23.35	>>	00.00
00.15 <sup>M</sup>	00.25 <sup>M</sup>	00.35 <sup>M</sup>	>>	01.00 <sup>M</sup>
01.15	01.25	01.35	>>	02.00
02.15 <sup>M</sup>	02.25 <sup>M</sup>	02.35 <sup>M</sup>	>>	03.00 <sup>M</sup>
03.15 <sup>M</sup>	03.25 <sup>M</sup>	03.35 <sup>M</sup>	>>	04.00 <sup>M</sup>
04.15 <sup>M</sup>	04.25 <sup>M</sup>	04.35 <sup>M</sup>	>>	05.00 <sup>M</sup>
05.15	05.25	05.35	>>	06.00

Zarautz	Orio	Usurbil	Donostia	Donostia	Usurbil	Orio	Zarautz
06.08	06.15	06.24	06.39	05.47	06.03	06.14	06.20
06.38	06.45	06.54	07.09	06.17	06.33	06.44	06.50
07.08	07.15	07.24	07.39	06.47	07.03	07.14	07.20
07.38	07.45	07.54	08.09	07.17	07.33	07.44	07.50
08.08	08.15	08.24	08.39	07.47	08.03	08.14	08.20
08.38	08.45	08.54	09.09	08.17	08.33	08.44	08.50
09.08	09.15	09.24	09.39	08.47	09.03	09.14	09.20
10.08	10.15	10.24	10.39	09.47	10.03	10.14	10.20
11.08	11.15	11.24	11.39	10.47	11.03	11.14	11.20
12.08	12.15	12.24	12.39	11.47	12.03	12.14	12.20
12.38	12.45	12.54	13.09	12.17	12.33	12.44	12.50
13.08	13.15	13.24	13.39	12.47	13.03	13.14	13.20
13.38	13.45	13.54	14.09	13.17	13.33	13.44	13.50
14.08	14.15	14.24	14.39	13.47	14.03	14.14	14.20
14.38	14.45	14.54	15.09	14.17	14.33	14.44	14.50
15.08	15.15	15.24	15.39	14.47	15.03	15.14	15.20
15.38	15.45	15.54	16.09	15.17	15.33	15.44	15.50
16.08	16.15	16.24	16.39	15.47	16.03	16.14	16.20
16.38	16.45	16.54	17.09	16.17	16.33	16.44	16.50
17.08	17.15	17.24	17.39	16.47	17.03	17.14	17.20
17.38	17.45	17.54	18.09	17.17	17.33	17.44	17.50
18.08	18.15	18.24	18.39	17.47	18.03	18.14	18.20
18.38	18.45	18.54	19.09	18.17	18.33	18.44	18.50
19.08	19.15	19.24	19.39	18.47	19.03	19.14	19.20
19.38	19.45	19.54	20.09	19.17	19.33	19.44	19.50
20.08	20.15	20.24	20.39	19.47	20.03	20.14	20.20
21.08	21.15	21.24	21.39	20.47	21.03	21.14	21.20
22.08	22.15	22.24	22.39	21.47	22.03	22.14	22.20
22.38	22.45	22.54	23.09				

00.00 Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN 00.00 Astelehenetik Igandera eta JAIEGAN  
 (M) Udaz bazarrik 08/06/23 - 08/09/07  
 Bezereen arretarako bulegoa 902 54 32 10 www.euskotren.es attcliente@euskotren.es

### Eguneko goardiako farmaziak

Apirilak 30, asteazkena  
 Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

Maiatzak 1, osteguna  
 Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

Maiatzak 2, ostirala  
 De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

Maiatzak 3 larunbata  
 Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte  
 Iturralde, Borda Berri 1, Usurbil\*

Maiatzak 4, igandea  
 Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Maiatzak 5, astelehena  
 Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Maiatzak 6, asteartea  
 Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

Maiatzak 7, asteazkena  
 Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Maiatzak 8, osteguna  
 Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

Maiatzak 9, ostirala  
 Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

Maiatzak 10, larunbata  
 Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte  
 Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil\*

Maiatzak 11, igandea  
 Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
*Correa Farmazia (22:00-09:00), Perkaiztegi kalea, 8 Hernani 943 33 60 22*  
 \*Usurbilen, soilik eguerdira arte

### Zubieta-Donostia TST autobusak

**ASTEGUNETAN**  
 Zubieta-Donostia  
 7:55\* / 9:30(T) / 13:15(T)  
 14:35\*(T) / 19:15(T)

**Donostia-Zubieta**  
 (Gipuzkoa plazatik)  
 7:15\* / 9:00 / 12:45(T)  
 13:45\* / 18:45

**LARUNBATETAN**  
 Zubieta-Donostia  
 8:15(T) / 12:45  
 15:15(T) / 21:35(T)

**Donostia-Zubieta**  
 (Gipuzkoa plazatik)  
 12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

**JAI EGUNETAN**  
 Zubieta-Donostia  
 11:25(T) / 13:30(T)  
 15:30(T) / 21:35 (T)

**Donostia-Zubieta**  
 (Gipuzkoa plazatik)  
 11:00(T) / 13:00(T)  
 15:00(T) / 21:00 (T)

T: Autobus aldaketa beharrezkoa da  
 \*: Eskola egunetan / Tf. 943 36 17 40

# Tren Orduetgia



## Agenda !

### Maiatzak 3 larunbata

- 19:30ean "Voces del desierto" dokumentala Sutegin. Ondoren, hitzaldia euskaraz. Sarrera doan.

### Maiatzak 4 igandea

- Egun osoz Andatzen erromeria.

### Maiatzak 5, astelehena

- Odol-ematea herriko anbulatorioan, arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara.

### Maiatzak 6, asteartea

- Hitzaldia: konpostajearen garrantzia eta bere prozesuak. 19:00etan Sutegin.

### Maiatzak 9, ostirala

- "Hotsez hots" erakusketaren inaugurazio ekitaldia. 19:30ean Sutegin.  
- "Gaurko menua" antzerkia Sutegin. 22:00etan. Sarrera, 8 euro aldeztu aurretik, 10 euro egunean bertan.

## Jaietako danborradan izena emateko garaia da

Santixabeletarako bi hilabete eskas geratzen diren honetan, jaietako prestakizunek aurrera jarraitzen dute. Haur eta helduen danborradetako antolatzaileek jada zehaztu dute aurtengoan danborra jo nahi dutenek zer egunetan eman ahalko duten izena eta noiz izango diren entsegu saioak. Haurren danborradan parte hartu nahi dutenek, maiatzaren 7an 18:00etan Agerialdeko patioa hurbildu daitezke izena ematera. Haien lehen entsegu saioa maiatzaren 10ean izango da, leku berean eta goizez, 11:00-11:45 artean.

Helduen danborradari lotutako lehen hitzordua maiatzaren 9an finkatu dute. Egun horretan eman ahalko da izena eta lehen entsegu saioa ere une horretan egingo da. Aipatu bezala hilaren 9an, 20:30etik aurrera Agerialdeko patioan. Informazio gehiago: 943 371 999.



MAIATZAREN 7AN EGINGO DA BILERA AGERIALDEKO PATIOAN.

### Emanaldi egunak zehaztuta

Haurren danborrada uztailearen 2an, Santixabel egunean izango da, 12:00etan. Helduak aldiz, bezperan eta bitan irtengo dira danborra jotzera. Uztailearen 1ean arratsaldeztu, 19:00-21:00 artean eta gauerdian, txupinazoa udaletxeko balkoitik jaurti osten.

## KzGuneko ikastaroak maiatzean

### MAIATZAK 5-16

Internet KzGunea ikastaroa  
16:00-18:00

### MAIATZAK 6 ASTEARTEA

Ikastaroa: sinadura elektronikoa  
18:00-20:00

### MAIATZAK 7 ASTEAZKENA

IT txartela lortzeko azterketa eguna  
18:00-20:00

### MAIATZAK 12 ASTELEHENA

IT txartela lortzeko azterketa eguna  
18:00-20:00

### MAIATZAK 15 OSTEGUNA

Ikastaroa: Eustat  
18:00-20:00

### MAIATZAK 16 OSTIRALA

Ikastaroa: Sinadura elektronikoa  
18:00-20:00

### MAIATZAK 19 ASTELEHENA

Ikastaroa: Via Michelin-ekin bidaiatu, 16:00-17:00

### MAIATZAK 19 ASTELEHENA

Ikastaroa: Itzultzaileak  
17:00-18:00

### MAIATZAK 19-20

Ikastaroa: Irudi digitalen tratamendua I, 18:00-20:00

### MAIATZAK 20 ASTEARTEA

IT txartela lortzeko azterketa eguna  
16:00-18:00

### MAIATZEAN KzGUNEA:

arratsaldeztu 16:00-20:00  
Kale Nagusia 37, 20170 Usurbil.  
Tel.: 943 361 412.

### ETXEBIZITZA

- Baserri bat hartuko genuke errentan bi lagunek. 656 703 814.
- Kaskoan pisu bat alokatzen dugu, garajea dauka. Abala eskatzen da. Deitu 19:00tatik 21:00ra 607582968 telefonora.
- Santuenea auzoan hirugarren pisua salgai, guztiz amueblatua, 50m ditu. Gela bakarrekoa, sukalde, sala eta komuna oso argia da. 161.000 euro. 675709914.
- Zubietan 75 metro karratuko etxebizitza salgai. 2 logela, sala, komun bat, trastero txiki bat eta sukalde handi bat. Kanpokaldera ematen du etxe osoak eta bizilagunentzako aparkalekua dauka. 210.000 euro. 690290981.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara dituena. Dena berritua eta amueblatua. 49.800.000 pta. Tf: 657 71 13 35.
- Terrenoa duen borda bat hartuko nuke Usurbil edo inguruan. 664774024.
- Terrenoa daukan baserri bat erosiko nuke. 664774024.
- 75.000 metro karratuko terrenoa daukan baserri bat daukat salgai. Argi indarra, telefonoa eta ura ditu. Agroturismo bat jartzeko oso egokia. 664774024.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukalde, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukalde, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
- Pisua salgai Atxegalden. 4 logela, bi komun, sukalde, egongela eta trasteroa. Berritua. 53.000.000 pezeta. 696 693 710.
- Etxebizitza salgai. 86m karratu erabilgarriak + 13m karratu balkoi(eguzkitsua), 3 logela, bainua, komuna, kalefazioa, trasteroa eta igogailua. 318.000 euro. Tf: 688670561.
- Apartamentu-duplex rustikoa saltzen du partikularrak. Zubietan Elizaren ondoan dago eta etxebizitza sartzeko moduan dago. 245.000 euro. 678084020.
- Etxea salgai Kale Nagusian. 90 m. Igogailua, garajea, trasteroa. 943361383.
- Pisua salgai. Santuenean, 16 zbkia 4. pisua, 30 milioitan (negoziagarria). 667802888.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666

539284.

- Pisu bat edo etxe bat alokatu nahiko nuke. 650082049.
- Pisua alokatuko nuke Usurbilen. 661 702 708.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna, sukalde, egongela eta trasteroekin. 685731792.

### SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Kale Nagusian garaje itxi bat alokatzen dugu. Kotxeak sartzeko egokia, lokal moduan ez dugu alokatzen. 85 euro hilabetean. 943361235.
- Volkswagen California bat daukagu salgai. 92. urtekoa, 2400eko motorra, konpondu berria... 650004264 edo 943243379.
- Citroen Picasso Diesel salgai. 4 urte. 617 24 26 60 (Nere).
- Hiru ateko Honda Civic salgai. Beti garajejan egondakoa. 620625823.
- 5 urte dituen Renault Megane Coupe bat daukat salgai. 637 760 852.

### LANPOSTUAK

#### Lan-eskaintzak

- Sukalderako emakume bat behar da, Usurbilgo taberna baterako. 943 36 87 71.
- Astean 3 edo 4 egunez eta egunean 3 orduz (goizez ahal bada) pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emakume euskaldun baten bila gabiltza. Orduategian flexibilitatea izatea eta auto propioa izatea baloratuko da. 607233255 / 616273785.
- LH edota DBHko ikasleei klase partikularrik emateko prest egongo al zinarete? Udaregi ikastolan, lan hori beteko luketen pertsonekin zerrenda bat osatzen ari gara. Interesatuak pasa Ikastolatik.
- Astean bi egunetan etxeko lanak egin eta tarteka umea zaintzeko pertsona baten bila nabil. 627278907.

#### Lan-eskaerak

- DBHko klase eta batez ere matematikako klase partikularrik emateko pertsona euskaldun baten bila nabil. 670573438.
- Sukaldaria naiz, goizez egingo nuke lan, Usurbilen bizi naiz. Autoa dut. Esperientzia asko: 669243437

- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 620 646 769.

### BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Usurbilen edo inguruan belardiak behar dira belarra ontzeko. Tf: 607 45 70 04. 943 36 60 40. Dani.
- Musika ekipo bat salgai: mahaia, etapak, ahots efektuak... egokia talde baten lokalean jartzeko. Larra DJ 615713204.
- Euskal arrazako bi pottoka salgai: kalifikatuak eta udaberriean umea egingo dutenak. 653719176.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220925
- Martxoaren 15ean zilar kolorezko eskumuturrekoa brazalet itxurakoa galdu nuen. Barrukaldean "uno d 50" jartzen du. 943 36 52 61
- Martxoak 9an Usurbilgo frontoian xira txuri-gorri bat galdu dut. Aurkitu baduzu: 943130036.
- Otsailaren 24an Igeldo inguruan Pastor Aleman eme gazte bat galdu dugu. Bikote batek hartu zuela uste dugu. Txipa eta identifikazio plaka ere badauzka. 943210330.
- Naranja eta gorri koloreko bi raketa galdu ditugu; bat handia, bestea txikia. 692 837 951.
- Abenduaren 4an giltzak galdu nituen giltzatak beltz barekin. Aurkitu badituzu: 685 72 56 81.
- Usurbilgo gazte kuadrila bat gara eta lokal bat alokatu nahi genuke herrian. 943360744.
- Kotxeko aulkitxoak salgai. Maxi Cosi Priori XP. 80 euro, erdi prezioan. 652 764 620.
- Egurrezko aulkia salgai. Aritz egurrez eginikoa. 943 36 20 49.
- Bigarren eskuko trikitixa bat erosiko nuke. 656 76 52 13.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net



Egun zoragarria maiatzaren bia, gure **Luis Marirentz** oso pozgarria. Alaitsu jarri du ba Kale-zahar aldia, zoriontsu igaro urte-betetzia.



**Zorionak Kevin!!** Maiatzaren 4an izango da zure urtebetetze eguna. Zorionak eta muxu potolo bat amonaren partez. Ondo ondo pasa!



**Zorionak Izaro!** Maiatzaren 3an, etxeko printzesak 4 urte egingo ditu. Zorionak eta muxu handi eta potoloak etxekoen partez.

**Oharra:** *Jaiotzak,* Usurbilgo Bake Epaitegitik jasotako datuak. Merkatu Txikirako mezuak, zorion agurrak, hildakoen edota jaioberrien aipamenak orri honetan ikusi nahi badituzu, deitu bulego orduetan, telefonora: 943 360 321. [erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com)



**Zorionak Patxi!** Pasa den ostiralean, manifestazioa eta gero argazkia atera genien. Besarkada handi bat eta zorionak hire adiskideen partez. Euskal Presoak etxera!!

### JAIOTZAK

**Ekhi Manterola Encinas,** apirilaren 13an jaio zen

**Olaia Iparragirre Gavilan,** apirilaren 9an jaio zen



www.noqua.com



usurbildarron zerbitzura





Kultur Ekitaldiak

apirilean

film laburren proiektzioa eta Katamalo ikusi ditugu.

eta maiatzean

**PLIS, PLAS, TXALO TA JOLAS**

Maiatzaren 24tik ekainaren 19ra • Usurbilgo auzo eta herrietan

**ORNITORRINKUS**

Maiatzak 31 larunbata  
Usurbilgo dema plazan

**NOAUA!**

Kultur elkartearen eskutik

